

TEILATUAN KONTATZEN NIZKIZUN IPUINAK

Amets Zuazo Garmendia, 16 urte

Irun

Gogoratzen al dut inoiz,
gogoratzen al dut maiz,
lurrak berdeak zirenean
eta itsasoak urdinak zeudenean.
Mendi, koba eta leize,
denak sorginen etxe.
Bi herritar emakume:
Lamiñ eta Ilune.

Zelai, sega eta behi,
etxean denok ezkontzaren zain.
Baina, halakorik ere!
Neska hauek ezetz eta ezetz.
Deabruak ongi gordeta dauka
bi emakumeen sekretu latza.
Txoriek txioka diraute
begiek egiten dutenean elkarrekin truke.

“Ba ote du San Juanek
niri erruki hau gorde,
eta urrezko atetik ezin pasa zerura
bidaliko nauena betiko inpernura?
Ez a ote dago munduan niri, Lamiñ,
gorputzetik deuseztuko nauenik min?
Ezin nik egin, ordea,
bekatua baita pronto heriotzan murgiltzea.”

Mendira zihoan, negar eta zotín,
handik zuhaitz batek entzun zion egin.
“Zer duzu, neska triste polit hori?
Malkoak behera baitituzu masailetatik.”
“Ez det bizitzarik merezi,
ezkondu ez baitut neuk erabaki.
Ilune daukat nere errege erregín,
berarekin ez bada ez det zertan segitzerik.”

“Hauek bai amodioaren gazi-gozaok!
Sortzen dituztenak triste-pozak!
Gaur negar, bihar barre,
ez zaitez horregatik kezkatu ere!
Bihotzak ez dira, jada, geureak,
nahi adina egiten baititu bereak.
Baina nik gehiagorik ezin det egin,
entzun, beraz, eta ez ibili goibelki!”

Zuhaitz jatorrak, laguntza bila,
bere adiskide hodeiari egin zion deia.
“Zatoz, nere adiskide jakintsu!
Hemen eman beharko baituzu kontseju.”

Orduan zeruan laino zuri
agertu zen zuhaitzaren adiskide min.
Lamiñen ondoan gozoki egin zen kokatu.
“Ene, tristetxo! Esan, zer daukazu?”

“Hemen naiz, ez gauza ez habila.
Deabrua etorriko zait nere bila.
Ama haserre, aita ero,
etxean ez naute sartzen utziko gero.”
“Ez zaitetz triste ibili, laguntxo,
nik gordeko baitizut arima betiko.
Zeruan zehar ibiliko gara elkar,
Ilune zure aldamenara itzuli arte, behintzat.”

Hodeia Lamiñ ikustean triste sentitu
eta Eguzki jaunari egin zion deitu.
“Lagundu iezaiozu, jaun boteretsu,
amodioa izan baita berean nagusitu!”
Orduan neskatoa ikusi zuen Eguzkiak
eta goxo-goxo ipini begiak.
Bertan tximeleta eder handi
bihurtu zuen mendian Lamiñ.

Handik aurrera ibili zen tximeleta hegalari
zeru urdinetan zehar, hodei eta tximini.
Baina ez dago munduan leku gogokoagorik
Iluneren logelako leihoa izango ez denik.
Hartaz geroztik han dago beti
gau eta egun bere maitalearen ingurutik.
Ezin banatu txitoa eta ama hontza.
Ezin banatu pieza bakarreko bihotza.